

2001eko OTSAILAREN 19ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, bi mila eta bateko otsailaren hemeretziaren, gaueko bederatziak direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ana Ederra Irurzun, Antton Balerdi Garmendia, Nerea Altuna Zubeldia, Lurdes Altuna Arritegi, Lontxo Goikoetxeaundia Martinez eta Xabier Balerdi Urdampilleta; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- 2000 URTEKO AURREKONTUKO KREDITU ALDAKETA

KREDITU-GAIKUNTZEN ERREGIMENAREN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU-ALDAKETARAKO 3 ZK. ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA

Lizartzako Udal honen 2000ko Aurrekontuaren barnean Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DA:

- 1.- Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, 2.507.647,- pezetako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orriskan ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.
- 2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondoen Kontuhartzailletza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

3.- 2000 URTEKO LIKIDAZIOA ETA KONTU OROKORRAREN ONARPENA

ALKATETZAREN DEKRETUA

Idazkari-Kontuhartzaileak osatu duen, Lizartzako Udaleko 2000ko aurrekontuaren likidazioa eta horren dokumentuak aztertu ondoren, eta beraiekin ados egonik, otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauak, Entitate Lokalen Aurre-kontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan eta abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuak, Entitate Lokalen Aurrekontu-Erregelamendua onartzekoak, 60.3 artikuluan, emandako eskumenak erabiliz, hau

EBATZI DUT

Lehena.- 2000ko Lizartzako Udaleko Aurrekontuaren Likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

KONTZEPTUA	PARTZIALA	GUZTIRA
Altxortegiko Izakin Likidoak 2000-12-31ean		17.180.552
Kobratu Gabeko Saldoak, 2000-12-31ean	868.254	
Kobratu Gabeko Saldoak, itxitako ekitaldikoak	-----	
Kobratu Gabeko Saldoak, Aurrekontuz Kanpok.	192.915	+ 1.061.169
DENERA		18.241.721
Ordaindu Gabeko Saldoak		- 8.568.402
Aurtengo Ekitaldikoak	5.733.707	
Itxitako Ekitaldikoak	1.768.926	
Aurrekontuz Kanpokoak	1.065.769	
ALTXORTEGI-GERAKIN GORDINA		9.673.319
Saldo Kobragaitzak		-----
Altxortegi-gerakin likidoa		9.673.319
Finantzaketa lotua duten gastuetarako altxortegi-gerakina		-----
Gastu Orokorretarako Altxortegi Gerakina		9.673.319

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio-espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako foru arauak, 49.5 artikuluan, eta foru dekretuak, 60.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzarrari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

2000 URTEKO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA

2000 EKITALDIKO KONTUEN AZTERKETA ETA ONARPENA

Lehendakari jaunak hartu du hitza eta 2000 ekitaldiko Aurrekontuaren eta Ondarearen Administrazioaren kontuak aztertzeari ekingo zaiola esan du, guztiak ere jendaurreko erakustaldian jarriak eta Kontuen Batzorde Bereziak

aztertutakoak, Batzorde honek dagokion espedientean agertzen diren erregelamenduzko txostenak igorri dituelarik.

Idazkariak txosten horien irakurketa azkarra egin ondoren, eta kontu horiek erregelamenduzko ereduak betetzen dituztela eta behar besteko frogagiriak dituztela egiaztatuta, horiei buruzko informazio zabala eskuratu, eta bertaratutako jaun-andreek eskatutako azalpen guztiei erantzuna eman zaielarik, aho batez onartu egin dira.

Bertara etorritako jaun-andreei ohartarazi zaie 781/1986 Legegintza Errege Dekretuaren 460-5 artikuluari jarraiki, nolana ere, Kontu Epaitegiaren kanpo fiskalizazioaren menpe jarri behar direla eta aipatu artikulua horren aplikazioan, kontuak onartzeagatik erabakiak, akats eta oztopoen zuzenketak hala nola okerrak konpontzeko prozedurak, betearazleak izango direla.

4.- 2001 URTEKO AURREKONTU OROKORRA

Ekonomi Batzordean aztertuz gero eta, Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 149-4 artikulua eta Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzeko Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikulua eta Erregimen Lokaleko gaitan Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legearen 126.1 artikuluen arabera, 2001 urterako Aurrekontu Orokorra aurkeztu da, honela geldituaz:

SARREREN EGOERA

Kapitulua	Izena	Pezetak	Euroak
1	Zuzeneko Zergak	12.437.184	74.748,98
2	Zeharkako Zergak	500.000	3.005,06
3	Tasak eta Bestelako Zergak	4.574.464	27.493,08
4	Transferentzi Arruntak	54.263.352	326.129,31
5	Ondare Sarrerak	225.000	1.352,28
SARRERAK GUZTIRA		72.000.000	432.728,72

GASTUEN EGOERA

Kapitulua	Izena	Pezetak	Euroak
1	Pertsonal Gastuak	29.242.052	175.748,27
2	Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzuet	21.193.225	127.373,85
3	Finantza Gastuak	658.330	3.956,64
4	Transferentzi Arruntak	11.903.831	71.543,47
6	Inbertsioak	5.600.000	33.656,68
9	Pasibo Finantzarioak	3.402.562	20.449,81
IRTEERAK GUZTIRA		72.000.000	432.728,72

2001 urterako Aurrekontu Orokorra eta bera Egitaratzeko Oinarriak, aho batez onartuak izan dira.

PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA

Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen dituen Apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 90.1 eta 90.2 artikuluek eta Erregimen Lokaleko gaietan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bateragina onartuz, apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legegileko 126.1 artikuluko koerlatiboak erabakitzen dute, Udal Korporazioei dagokiela, Aurrekontuaren bidez, urteko Plantilla Organikoa eta Lanpostu Zerrendak onartzea, funtzionari, pertsonal laborala finko eta behin-behineko pertsonalari erreserbatuta dauden lanpostu guztiak barne izan behar dutelarik.

2001 URTERAKO PLANTILLA ORGANIKOA

KARRERAKO FUNTZIONARIENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

IZENA	Lanp. Kop.	T.6/89 L. 43. Art.	Egoera	Ohar.
IZAERA NAZIONALEKO FUNTZIONARIAK Idazkari-Kontuhartzaitzaren Azpimaila IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA	1	B	J	70%
ADMINISTRAZIO OROKORRAREN MAILA Laguntzaileen Azpimaila ADMINISTRAZIO OROKORREKO LAGUNTZAILEA	1	D	J	
ADMINISTRAZIO BEREZIAREN MAILA Azpimaila Teknikoa * Mota: Erdiko Teknikariak GIZARTE LAGUNTZAILEA	1	B	J	36%
Administratiboa * Mota: Laguntzailea LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	1	D	J	40%
Zerbitzu Bereziak *Mota: Ofizioetako Pertsonala ZERBITZU ANITZETARAKO OFIZIALA	1	D	J	
GARBITZAILEA	1	E	J	
LAN PERTSONALI GORDETZAKO LANPOSTUAK	Lap.Kop.	Lanbide Maila	Taldea	Egoera
ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEA	1	6	E	BB

2001erako LANPOSTUEN ZERRENDA

KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

Lanp. Izena	Eskala	Azpi eskala	Titulazioa	S. P	Dedik azioa	Taldea	Maila	Osag. Espez.	H.E	Derr. Data	Egoera	Best.
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA	Administ Orokorra	F.H.N .	P Zientziak edo Zuzen. Diplom.	C	%70 Berez .	B	23	1.496.964	4	91-02-06	Aktib.	Agrup .
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	Administ Orokorra	LAGUN TZAIL	Eskola Graduatu edo LH1	C	%100 Berez .	D	14	1.660.302	3	91-02-06	Aktib.	Funtz.
GIZARTE LAGUNTZAILEA	Administ Berezia	TEKN .	Diploma Duna	C	%36 Berez .	B	17	511.112	3	91-12-01	Aktib.	Funtz.
OFIZIALA	Administ Berezia	ZERB. BEREZ	Eskola Graduatu edo LH1	C	%100 Berez .	D	16	1.909.880	2	91-02-06	Aktib.	Funtz.
LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	Administ Orokorra	LAGUN TZAIL	Eskola Graduatu edo LH1	C	%40 Berez .	D	13	585.340	3	96-04-01	Aktib.	Funtz.
GARBITZAILEA	Administ Berezia	ZERB. BEREZ	Eskola Ziurtagiria	C	%100 Berez .	E	8	1.120.434	2	92-05-01	Aktib.	Funtz.

BEHIN-BEHINEKO LAN PERTSONALARI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

Lanp. Izena	Eskala	Azpi eskala	Titulazioa	S.P	Dedika zioa	Taldea	Maila	Osag. Espez.	H.E	Derr. Data	Egoera	Best.
ETXEZ ETXEKO LAGUNTZAILEA	Administ Berezia	ZERB. BEREZ	Eskola Ziurtagiria	C	%26,67 Berez.	E	6	Ez	2	91-02-06	Aktib.	BB

5.- 2001 URTEKO LANGILEEN HITZARMENA

2001 URTERAKO, LIZARTZAKO UDALERAKO

KOMENIO KOLEKTIBORAKO PROPOSAMENA

1. Art.- Komenio honen sinatzaileek (Administrazioa eta Langileen Asanblada) errekonozitzen dute, honen oinarriko egitura, Komunitate Autonomoko Langileen enplegu kondizioen 2000ko Akordio Arautzailearen Testu osoa izango dela.

Errekonozimendu honek suposatzen du, komenioak afektatutako pertsonalaren enplegu kondizioetan gutxieneko maila gisa ulertzen dutela bi aldeek aipaturiko testua, eta beraz, inolaz ere ezin izango dela aipaturiko testuan iadanik lortutako eskubide laboralak baino beheragoko kontzepturik edo hauek murrizten dituenik ezarri eta aplikatu.

Aurrekoari jarraituz eta Lizartzako Udaleko Langileentzako 2001ko Komenio Kolektibo gisa, bi aldeek sinatzen duten eta betetzera eta errespetatzera konprometitzen direnaren edukin-definizio generiko gisa, ondorengo eskubide laboral bloke hauek zehazten dira:

2001 URTERAKO PLATAFORMA ERREIBINDIKATZAILEA

1. Blokea.- 2000ko Administrazio Lokalaren Akordio Erregulatzzailearen testu orokorra eta Udaleko Komenio Kolektiboa.
2. Blokea.- Textu horri buruz, azken urte hauetan Udal langilegoak aurkeztutako zenbait plataforma erreibindikatzailetan, jasotako eta onartutako hobekuntza eta anpliazioak.
3. Blokea.- 2001erako Komunitate Autonomo mailan, Administrazio Lokaleko akordio erregulatzzailean agertzen diren hobekuntza guztiak (2000ko

testuaz gain), Lizartzako Udal langile guztien aplikaziorako izango dira, aurtengo urtarrilaren lehen ez geroztik.

4. Blokea.- Bloke hau, Udal honetako langileek egindako plataforma erreibindikatzailearen zenbait puntuk osatzen dute:

a) Pertsonal Maila

Hitzarmen honek, 2001eko plantilla osatzen eta osatuko duten langile guztiengan izango du bere eragina. Hitzarmen hau berdin aplikatuko da denentzat, inongo diskriminaziorik gabe, nahiz eta langile batek bere zerbitzua kontratatu laboral bezela bete edo funtzionari moduan.

b) Denboraldia eta Iraupena

Hitzarmen honek, 2001eko Urtarrilaren 1etik, 2001eko Abenduaren 31 bitarte dirauko du, epe hau, 2002 urteko hitzarmen kolektiboa indarrean jarri artean luzatuko delarik.

c) Lan Orduak

Udal langileek, urte osoan zehar gehiengoz, 1.590 ordu bete beharko dute.

d) Ordainketa Taula

2001ko komenioaz afektaturik dagoen guztiak, ordainketa gordinetan igoera hau izango du: $IPC - 4\% + 0,3$, Administrazio Lokaleko Akordio Erregulatzzaileak jasotzen duen igoera langilego guztiari ziurtatuz.

e) Kilometrajea

Lan orduetan egiten diren kilometroak, kilometro bakoitzeko 36 pezta ordainduko da.

f) Bizia, Istripu eta Elbarritasun Asegurua

Gaur egun dagoen asegurua mantenduko da.

g) Gizarte Erantzunkizunaren Asegurua

Lizartzako Udala, edozein langilei bere funtzioak betetzerakoan sor lekioken gizarte erantzunkizunaren arriskuaz arduratuko da, haren garrantziaren proportziozko kopuruan.

Alkateak, Pertsonalaren Delegatuei entzun ondoren, dagozkien polizen kondizioak erabakiko ditu.

Edozein langile, bere lanak betetzerakoan auzitan sartzea gertatuko balitz, Udalak bere defentsarako giza medioak jarri beharko ditu.

h) Urteko Oporrak

2001 urtean zehar, langile guztiak 24 lanegun (Astelehenetik Ostiralera kontatuta) opor hartzeko eskubidea izango dute, hauek ordainduak izango direlarik.

i) Osasun Errebisioa

Udalak, langile guztiei urtean behin, Osasun Errebisioa egingo die. Gutxienik, odol eta pixaren analisia, Rayos X eta Minbiziaren diagnostiko prekoza, egingo dira.

Luzatzen diren txostenak, langile bakoitzari banatuko zaizkie.

j) Lizentziak

Arcepafeko 52. artikuluan, senideen heriotza edo gaixotasun grabeagatik gainera, Internamenduarena erantsiko da.

Arcepafeko 57. artikuluan, medikuntza motako kontsulta, tratamendu eta miaketara joatearen ziozko lizentzia, urteko 48 ordukoa izango da. Lizentzi hau emango da guraso, seme-alaba eta ezkontide edo elkarbizitza egonkorra egiten duenarekin joateko ere.

k) Gaixotasun Baja

Gaixotasun bajarengatik, Udal langilegoak bere ordainketen 100%koa jasoko du, gehienez 3 urte bitarte.

l) Barne Promozioa

Bai hutsik dauden lanpostu fijoak eta sortu litezken berriak, lehenik Lizartzako Udaleko langilego fijoari eskeiniko zaizkie.

Lizartzako Udaleko edozein langilek, barne promozioan agertutako edozein lanposturen hautagai izateko eskubidea izango du, inongo diskriminaziorik gabe, nahiz eta legeak eskatzen duen ikasketa edo titulazioa betetzen duen bitartean.

m) Nibelaren Berrikuspena

Hirurtekoen arabera, langile fijo bakoitzaren nibelaren berrikuspenaren proposamena egingo da, egoki iruditzen bada, Udalak bere onarpena emango dioelarik, bere taldeari dagokion nibel haundienera iritsi arte.

n) Eskubide Sindikalak

Lizartzako Udaleko Sekzio Sindikalak bere kideen ordu sindikalak, urtero akumulatzeko eta behar dituztenean hartzeko eskubidea

izango dute, beren ordezkari karguen artean, erarik hoberenean banatzeko aukera izanaz.

Langile ordezkariak egiten dituzten lan eta funtzio guztiak zerbitzu batzorde barruan eginak kontsideratuko dira, eta pertsonal zerbitzua jakinaren gainean jarri ondoren, sortu lirateken gastuak Udalak finantziatu beharko ditu, behar den bezela justifikatu ondoren.

Lizartzako Udal langileek urtean zehar asanbladak egiteko 20 lan ordu (ordainduak) hartzeko eskubidea izango dute.

2001 URTERAKO ORDAINKETA OROKORRAK

IGOERA: 4,3 %

NIBELA	2000 Urtean		4,3% IGOERA		GUZTIRA		BPFZO
	Peztak	Euroak	Peztak	Euroak	Peztak	Euroak	
30	548.491	3.296,50	23.586	141,75	572.077	3.438,25	24%
29	533.196	3.204,57	22.928	137,80	556.124	3.342,37	24%
28	517.895	3.112,61	22.270	133,85	540.165	3.246,46	24%
27	502.596	3.020,66	21.612	129,89	524.208	3.150,55	23%
26	487.296	2.928,71	20.954	125,94	508.250	3.054,64	23%
25	471.999	2.836,77	20.296	121,98	492.295	2.958,75	22%
24	456.702	2.744,83	19.611	117,86	475.683	2.858,91	22%
23	441.398	2.652,86	18.981	114,08	460.379	2.766,93	21%
22	426.106	2.560,95	18.323	110,12	444.429	2.671,07	21%
21	410.958	2.469,91	17.672	106,21	428.630	2.576,12	20%
20	395.509	2.377,06	17.007	102,21	412.515	2.479,27	20%
19	380.178	2.284,92	16.348	98,25	396.526	2.383,17	20%
18	364.910	2.193,15	15.692	94,31	380.602	2.287,46	19%
17	349.610	2.101,20	15.034	90,36	364.644	2.191,55	19%
16	334.313	2.009,26	14.376	86,40	348.689	2.095,66	19%
15	319.023	1.917,37	13.718	82,45	332.741	1.999,81	18%
14	303.714	1.825,36	13.060	78,49	316.774	1.903,85	18%
13	288.415	1.733,41	12.402	74,54	300.817	1.807,95	17%
12	275.137	1.653,61	11.831	71,11	286.968	1.724,71	17%
11	261.952	1.574,36	11.264	67,70	273.216	1.642,06	16%
10	248.584	1.494,02	10.690	64,25	259.274	1.558,27	15%
9	235.311	1.414,25	10.119	60,82	245.430	1.475,06	15%
8	222.958	1.340,00	9.588	57,63	232.546	1.397,63	14%
7	210.607	1.265,77	9.057	54,43	219.664	1.320,21	14%
6	198.435	1.192,62	8.533	51,28	206.968	1.243,90	13%

2001 URTEKO HIRURTEKOAK

IGOERA: 4,3 %

TALDEA	2000 URTEA		4,3 % IGOERA		GUZTIRA	
	Peztak	Euroak	Peztak	Euroak	Peztak	Euroak
A	7.693	46,24	331	1,99	8.024	48,23
B	6.248	37,55	269	1,62	6.517	39,17
C	5.615	33,75	242	1,45	5.857	35,20
D	4.533	27,24	195	1,17	4.728	28,42
E	4.007	24,08	173	1,04	4.180	25,12

2001 URTEKO KOMENIOKO ORDUAK.....		1590,00
URTARRILA	22 x 7,25 (7 Ordu 15 Minutu)	159,50
OTSAILA	20 x 7,25	145,00
MARTXOA	22 x 7,25	159,50
APIRILA	18 x 7,25	130,50
MAIATZA	22 x 7,25	159,50
EKAINA	21 x 7,25	152,25
UZTAILA	19 x 7,25	137,75
ABUZTUA	22 x 7,25	159,50
IRAILA	19 x 7,25	137,75
URRIA	22 x 7,25	159,50
AZAROA	20 x 7,25	145,00
ABENDUA	16 x 7,25	116,00
<u>URTEKO ORDUAK 243 x 7,25</u>		1761,75

URTEKO ORDUAK	1761,75
OPORRAK 24 LANEGUN x 7,25	174,00
2001 URTEKO LAN-ORDU ERREALAK	1587,75
HITZARMENEN LAN-ORDU ERREALAK	1590,00

ERREKUPERATZEKO	2,25 (2 Ordu 15 Minutu)
------------------------	---------------------------------

Idazkariak hitza harturik dio, 2001erako onartzen diren, Estatuko Aurrekontu Orokorraren, Abenduaren 28ko 13/2000 Legearen arabera, Sektore Publikoan sartzen diren langileen ordainketen igoera, 2%a baino handiagoa ezin daiteke izan.

Horren arabera, Lizartzako Udaleko Langileentzako, 2001 urterako planteatzen den 4,3%ko igoera ez da legezkoa.

Idazkariak eginiko oharpenaren jakinean, 2000-2001erako ARCEPAFEK onartutako baldintzak ezarriaz, 2001 urterako, Lizartzako Udaleko Langileentzako igoera, 4,3%koa ezartzea, aho batez onartua izan da.

6.- INSALUS. IGOKA ESPEDIENTEA

IKUSIRIK.- AGUA DE INSALUS S.A.k aukeztu duen, herri honetako A-5 arean kokatua dagoen enpresaren Irekiera baimena eguneratzeko baimena eskaera, eta horri buruz eman diren tramiteak.

IKUSIRIK.- Iharduera jarri nahi den eraikuntza, 1961eko Azaroaren 30eko Erregelamenduak dioenarekin, Udaleko Arauetara egokitu, eta Arau Subsidiarioetako hirigintz kalifikazioarekin ados dagoela.

IKUSIRIK.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, aldeko txostena luzatu duela.

Horren arabera, zera proposatu da:

- 1.- Agua de Insalus S.A.k aukeztu duen, herri honetako A-5 Arean kokatua dagoen enpresaren Irekiera baimena eguneratzeko eskaturiko baimenari, aldeko txostena luzatzea.
- 2.- Ihardueraren ezaugarrien arabera, UR MINERALAREN ONTZIRAKETA ETA SALMENTA kalifikazioa proposatzen da.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

7.- GOIKOETXEAUNDIA ZERRA. A-6 EREMUA

Udal honek, bi milako maiatzaren hogeita bederatzian eginiko Bilkura Nagusian, Lizartzako Arau Subsidiarioetako U-2 Sektoreko Aldaketari lehen onarpena eman zion.

KONTUTAN HARTUAZ.- Erabaki hori, 2000ko uztailaren 3ko, 125 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta 2000ko Uztailaren 12ko Gara eta Egunkaria egunkarietan, hilabeteko epean, jendeaurrean egon zela, eta ez zela inola alegaziorik jaso.

TJOL.ko 54. eta Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudiaren 173. Artikuluaren arabera, Idazkariak Txostena luzatu du.

TJOL.ko 114. eta Planeamenduko Erregelamenduaren 130 eta 131. artikuluek ikusirik, Udal Batzarrari, proposatu zaio:

ERABAKIA

- 1.- Lizartzako Arau Subsidiarioetako A-6 Eremuko Aldaketari, behin-behineko onarpena ematea.
- 2.- Aldaketari buruzko espedientea, Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, behin-betiko onarpena emateko eskatuaz.

A-6 Eremuko, Laguntzazko Arauen Aldaketaren Behin Behineko Onarpenari buruzko proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, gehiengo absolutuaren "quorum"arekin, aho batez onartua izan da.

8.- HIRI ONDASUNEN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEAREN ONARPENA

Idazkariak hitza harturik, zera dio:

Aurreko ostiralean, Otsailak 16ean, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin edukitako bileran agertu zenez, Gipuzkoa guztiko Katastro Baloreak aldatu behar dira, horrek, gaur onartzeko proposatzen den Ordenantza Fiskalari afektatzen diolarik.

Hori dela eta, Katastro Baloreak zehaztu bitarte, Ordenantza Fiskalaren onarpena atzeratzea proposatu du.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

9.- LIBURUTEGIKO INFORMATIKA EKIPOAREN ERABILERA KO ARAUDIA

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA

Erregelamendu honen bidez, Liburutegiko informatika ekipoaren erabilera eta funtzionamendua erregulatzeko araudia ezarri nahi da.

2. ARTIKULUA

Informatika ekipoaren xedea, herriko elkarte eta partikularren behar informatikoak betetzea da, aipatutako gelan dauden baliabideak erabili ahal izango dituztelarik.

3. ARTIKULUA

Erregelamendu hau behin behineko da (denbora batean proban jarriko da)

ERABILERA ERREGIMENA

4. ARTIKULUA

Ondorengo ekipamendua eskeintzen da: multimedia ordenadore bat, inprimagailua eta softwarea.

Herriko gazte edo sozio-kultural elkarte eta partikularrek erabili ahal izango dute.

5. ARTIKULUA

Elkarte eta partikularren esku jartzen den ekipamendu informatiko hau honako asmoekin erabili ahal izango da:

- Elkarteen helburuak betetzeko beharrezko diren akitibitateak burutzeko.
- Kontsulta lanetarako internet sarea erabiltzea.
- Informatikako programen ezagupena hobetzeko praktikako aktibitateak egiteko.
- Ikasketekin zerikusia duten lanak egiteko.

5.1. Interneteko Lotura

5.1.1. Interneteko lotura kontsulta lanetarako da bereiziki.

Beste zereginetarako erabiltzeko (chat, jokuak ...) Liburutegiko arduradunak baldintzak jartzeko eskubideak izango ditu.

5.1.2. Ordainpeko zerbitzuak: Behin behinegoz erabakitzen da internet erabiltzea doaneko zerbitzua dela.

5.1.3. Iraupena: Pertsona bakoitzak (ordu erdia) erabili ahal izango du ordenagailua saio bakoitzean.

6. ARTIKULUA

Erabiltzaileak, informatikako ekipoen somatutako gorabeheren berri eman beharko diote Liburutegiko Arduradunari, baita erabiltzerakoan gertatutakoena ere.

7. ARTIKULUA

Ordutegia: Liburutegikoa

Ordenagailua erabiltzeko txanda zuzenean edota telefono bidez hartu beharko da.

8. ARTIKULUA

Ordenagailuaren erabilera Liburutegiko Arduradunak antolatuko du eta honen esku egongo da halaber ordenagailuak erabiltzerakoan sor daitezkeen edozein zalantza argitzea eta ezusteko gertakizunak erabakitzea.

9. ARTIKULUA

Ekipamendua zaindu eta ondo erabiltzeko oinarritzko arauak betez erabili beharko da, erabiltzailearen ardura izango delarik materiala zaintzea, berritzea, edota behar bezala ez erabiltzeagatik kalteak ordaintzea.

Beraz, erabiltzaileek ezagutzen dituzten programa informatikoen funtzioak bakarrik erabili beharko dituzte. Zalantzaren bat izanez gero Liburutegiko arduradunari galdetu beharko diete.

10. ARTIKULUA

Birus informatikorik ez sartzeko, erabiltzaileek, saio bakoitza hasi aurretik, Liburutegiko arduradunari erabili behar dituzten disketeak emango dizkiete, hauek behar bezala miatu ditzaten.

11. ARTIKULUA

Erabiltzaileek disko gogorrean lan egin dezakete baina, saioa bukatu aurretik, bere disketean gorde beharko dituzte sortutako artxiboak, eta disko gogorrean sartutako informazioa guztia ezabatu beharko dute.

12. ARTIKULUA

Erabiltzaileek ordenagailuarekin egindako lana bukatu nahi dutenean, behar bezala atera beharko dute beti programatik eta gero ordenagailua itzali, beste erabiltzaileek hurrengo batean erabili ahal izateko egoera onean utziz.

ERABILTZEKO BAIMENAK UKATZEKO ARRAZOIOAK

13. ARTIKULUA

Lizartzako Kultura Batzordeak, dagokion erabiltzaile edo elkarteari entzun ondoren, tresneria informatikoa erabiltzeko baimena ukatu ahal izango dio baldin eta arautegi honetan jasotako arrazoiren bat badago.

ERANTZUNKIZUNAK

14. ARTIKULUA

Informatika ekipoaren erabilerak zuzenean edota zeharka eragin ditzazkeen kalte eta galeren erantzule bakarra eragin dituen elkarte edo pertsona izango da.

10.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANAREN ONARPENA

UEMAko Teknikaria den, Esteban-ek, Eusko Jaurlaritzaren 86/1997 Dekretuaren 19.2 atalean xedatzen denari jarraituz, Lizartzako Udalarentzat, UEMAk egin duen **EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN**Aren aurkezpena egin du.

Lizartzako Udalarentzat, UEMAk egin duen EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA aztertu eta eztabaidatu ondoren, behin-behineko onarpena ematea, aho batez erabaki da.

Baita ere, Planaren proposamena, Eusko Jaurlaritzako Euskara Planetarako Sailera bidaltzea, erabaki da, beraiek, dagokion txostena eman dezaten.

11.- EUDIMAKO ESTATUTUEN ALDAKETA

2000ko Otsailaren 10ean eginiko, EUDIMA, Euskal Udal Intsumituen Mankomunitateko Batzar Orokorrean, Mankomunitateko hainbat artikuluen aldaketa proposatu zen, eta hauek dira:

4.- Artikulua. Helburuak

EUDIMA-ren helburua, Euskal Herria ez militarizatu batera iristea da, horretarako behar diren baliabide tekniko, ekonomiko eta pertsonalak jarritz.

5.- Artikulua. Funtzioak

EUDIMA-k bere helburuak lortzeko honako funtzio hauek bereganatuko ditu:

a) Intsumitu errepresaliatuen jarraipena.

- b) Gazteei, Udalei eta hauetako hautetsi publikoei behar den aholku eta asistentzia juridikoa eskeini.
- c) Epaketan aurrean babesa adierazi.
- d) Desmilitarizazioaren alde, berau bultzatzeko eta sentsibilizazioa indartzeko, ekintzak burutu eta inizatibak sortu.
- e) Helburuak lortzeko bidean, beharrezkoak ikusi daitezkeen hainbat ekimen.

Aipatutako funtzioak bete ahal izateko, EUDIMA-k aurrekontu bat eratuko du.

12.- EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMA BATEN ALDEKO MOZIOA ETA ALDARRIKAPENA

Espainiar Gobernuak onartu berri duen humanitateen erreformarako hezkuntza dekretuak Euskal Herriaren zati handi batean eragin kaltegarriak izango ditu. Geure herriari hezkuntza sistema propioa izateko aukera ukatzen zaio hala Pariseko Gobernuaren aldetik nola Madrilgo Gobernuaren aldetik, eta azkeneko honek onartutako dekretuak ukapen hori sendotzeko helburua baino ez dauka.

Euskal Herriko hezkuntza komunitateko gehiengo zabalak, bere aldetik, hezkuntza-dekretuari ezezko borobila ematearekin batera, Euskal Herriko sei herrialdeak bilduko dituen hezkuntza-sistema propio baten aldeko aldarrikapena egin berri du.

AKORDIO PROPOSAMENA

Espainiar Gobernuak onartutako humanitateen erreformarako hezkuntza dekretuaren aurrean, udaletxe honek honako adierazpen hau egiten du:

- 1.- Euskaldunok, munduko gainontzeko herriek bezalaxe, gaure hezkuntza sistema propioa antolatzeko eskubidea dugu. Eta eskubide ezezik, beharra ere bai. Izan ere, euskal hezkuntza sistema euskal belaunaldi berrien heziketarako zein gure herriaren garapenerako funtsezkoa baita. Madrilgo eta Pariseko Gobernuek ordea geure hezkuntza sistema propioa garatzeko eskubide hori ukatzen digute, espainiar zein frantziar hezkuntza sistemen legeria ezarriaz.
- 2.- Humanitateen erreformarako hezkuntza dekretua Madrilgo eta Pariseko Gobernuek darabilten hezkuntza politika horren ildoan kokatzen da, eta beraz euskaldunok geure hezkuntza eredua antolatzeko dugun eskubidearen aurka doa.
- 3.- Hezkuntza sistema propioaren aldeko lana gizarte osoari dagokiola aintzat hartuaz, udaletxe honek bere egiten du euskal hezkuntza sistemaren aldeko aldarrikapena, eta herritarren artean informazioa eta eztabaida bultzatzeko bitartekoak jarriko dituela hitzartzen du. Halaber, udaletxeak sare publikoko eskola kontseiluetan dituen ordezkarien bidez mozio honetan hitzartutako jarrera agertarazteko konpromezua hartzen du.
- 4.- Mozio honen edukien berri herrian eta ohiko komunikabideetan emango da aditzera.

Euskal Hezkuntza Sistema baten Aldeko Aldarrikapenari buruzko mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

13.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

JOSU GARMENDIA

Errotaburu baserriaren teilatua konpontzeko baimena.

ROKE AROZENA GOIKOETXEA

Lezinea Baserrian, artegi eta Mamia egiteko jarduera jartzeko baimena.

FERNANDO ROJO TOLOSA

Kale Nagusia 1eko 2. Soliruko etxebizitzaren sukalde eta komuniko berrikuntza egiteko baimena.

INAZIO ZEBERIO ARTOLA

Herri honetako Asura Etxeberri Baserrian, Untxien Granja jartzeko baimena.

JOSU GARMENDIA

Errotaburu baserrira doan bidea zabaltzeko baimena ematen da, baldintza hauekin:

- Obrak hasi aurretik Urak isurtzeko tarreak 30 metrora finkatu beharko dira.
- Zabalera errespetatuko da eta inoiz ez da 3 metro baino haundiagoa izango.
- Egokitu behar den bidez herri-bidea izanik, pasabidea beti libre izango da.

M. IZASKUN EL BUSTO SAENZ

Herri honetako Basaitzgoien Baserrira Eraberritzeko, Amaya El Busto Saenz Arkitekto Eragileak osatutako ejekuzio proiektuaren arabera, baimena ematen zaio.

AGUSTIN GOIKOETXEAUNDIA PAGOLA

IKUSIZ.- Lizartzako Planeamenduko Arau Ordezkatzaileetan azaltzen den, URKOLA-ALDEA izeneko terrenoan (2 Poligonoa, 142 Partzela) errekatik Lizartza aldera dagoen puxketan, Agustin Goikoetxeaundia Pagola Jaunak, eginiko pinu landaketa zela eta Lizartzako Udaleko Alkatetzak luzatutako dekretua.

IKUSIZ.- Agustin Goikoetxeaundia Pagola Jaunak, Lizartzako Lurzoru Hiritarrezinean egindako legez kanpoko pinuen landaketak direla eta, hauek ateratzeko aginduaren aurka aurkeztutako Birjarpenezko Errekurtsoa.

IKUSIZ.- 1999ko Abenduaren 20ko Alkatetzaren Dekretuaren arabera, Agustin Goikoetxeaundia Pagola Jaunak, 1999ko Azaroaren 25ean aurkeztutako birjarpenezko errekursoaren onartezintasuna adierazi zitzaiola, berriro, hamabost egunetako epea emanez, landatutako pinua atera zezan.

KONTUTAN HARTUAZ.- Agustin Goikoetxeaundia Pagola Jaunak, Donostiako 2. Zenbakidun, Administrazioerekiko Auzi Bide Epaitegian jarritako errekurtsua dela eta, Epaitegi horrek luzatu duen Erabakia, non, Jaun horrek jarritako errekurtsua ez den onartzen eta Udalak luzatutako Dekretuak legezkoak direla esaten den.

Guzti hori kontutan hartuaz,

ERABAKI DUT:

Lehenengo.- Agustin Goikoetxeaundia Pagola Jaunak, Lizartzako Lurzoru Hiritarrezinean egindako legez kanpoko pinuen landaketak zirela eta hasitako espedientearen jarraitzea.

Bigarrenengo.- Agustin Goikoetxeaundia Pagola Jaunari, HAMABOST EGUNetako epean ematea, landatutako pinua atera dezan. Honela egiten ez bada, Lizartzako Udalak ateratzea, ejekuzio subsidiarioan egingo du, gastuak interesdunaren gain joango direlarik.

Hirugarren.- Interesdunari ondorengo jakinaraztea: ebazpen honen aurka, Administrazio-Auzi Gaietako errekurtoa aurkez dezakela, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazio-Auzi Gaietako Aretoan hain zuzen. Ebazpena jakinarazi, eta bi hilabeteko epea izango du errekurtoa aurkezteko.

MANUEL BARRIOLA TOLOSA

IKUSIZ.- Lizartzako Planeamenduko Arau Ordezkatzaileetan azaltzen den, 2 Poligonoa, 335 Partzelan, Manuel Barriola Tolosa Jaunak, eginiko pinu landaketa zela eta Lizartzako Udaleko Alkatetzak luzatutako dekretua.

IKUSIZ.- Manuel Barriola Tolosa Jaunak, Lizartzako Lurzoru Hiritarrezinean egindako legez kanpoko pinuen landaketak direla eta, hauek ateratzeko aginduaren aurka aurkeztutako Birjarpenezko Errekurtoa.

IKUSIZ.- 1999ko Abenduaren 20ko Alkatetzaren Dekretuaren arabera, Manuel Barriola Tolosa Jaunak, 1999ko Azaroaren 22an aurkeztutako birjarpenezko errekurtoaren onartezintasuna adierazi zitzaiola, berriro, hamabost egunetako epea emanaz, landatutako pinua atera zezan.

KONTUTAN HARTUAZ.- Manuel Barriola Tolosa Jaunak, Donostiako 2. Zenbakidun, Administrazioerekiko Auzi Bide Epaitegian jarritako errekurtoa dela eta, Epaitegi horrek luzatu duen Erabakia, non, Jaun horrek jarritako errekurtoa ez den onartzen eta Udalak luzatutako Dekretuak legezkoak direla esaten den.

Guzti hori kontutan hartuaz,

ERABAKI DUT:

Lehenengo.- Manuel Barriola Tolosa Jaunak, Lizartzako Lurzoru Hiritarrezinean egindako legez kanpoko pinuen landaketak zirela eta hasitako espedientearen jarraitzea.

Bigarren.- Manuel Barriola Tolosa Jaunari, HAMABOST EGUNetako epean ematea, landatutako pinua atera dezan. Honela egiten ez bada, Lizartzako Udalak ateratzea, ejekuzio subsidiarioan egingo du, gastuak interesdunaren gain joango direlarik.

Hirugarren.- Interesdunari ondorengoa jakinaraztea: ebazpen honen aurka, Administrazio-Auzi Gaietako errekurtoa aurkez dezakela, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazio-Auzi Gaietako Aretoan hain zuzen. Ebazpena jakinarazi, eta bi hilabeteko epea izango du errekurtoa aurkezteko.

ZURIÑE ARSUAGA ARTOLA

Kale Nagusia, 13 – 3. Solairuan obrak egiteko baimena ematen da, baldintza hauekin:

- Behin obrak hasi ondoren, hauek ez badira aurkeztutako informazioaren arabera burutzen eta fatxadan, egitura edo instalazio nagusietan eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta kolegioak bisaturiko proiektua eskatuko da.

MANUEL BARRIOLA TOLOSA

IKUSIZ.- Manuel Barriola Tolosa Jaunak, Lizartzako Arauetan azaltzen den 2. Poligonoko 335 partzelan, eginiko pinu landaketak, eta Lizartzako Planeamenduko Arau Ordezkatzaileetan (21. Bis art.)ren arabera, aipatutako gunean, bertako ez diren hosto iraunkorra duten zuhaitz moten landaketa masiboa, debekaturik dagoela.

KONTUTAN HARTUAZ.- 1999ko urriaren 28an Alkatetzak luzatutako Dekretuaren bidez, terreno horretan, landatutako pinuak ateratzeko agindua eman zela, bestela ordezkatzeko egiterate eraz egingo zela.

KONTUTAN HARTUAZ.- Erabaki horren aurka, Donostiako Administrazio Auzi Epaitegian, helegitea jarri zuela Manuel Barriola Tolosa jaunak, eta epaitegi horrek 2000ko azaroaren 27an, epaia eman zuela, erabakia zuzenbidearekin bat datorrela berretsiz.

KONTUTAN HARTUAZ.- Epaia behin betikoa dela, eta Manuel Barriola Tolosa Jaunak, pinuak atera gabe jarraitzen duela.

KONTUTAN HARTUAZ.- Udalak, ordezkatzeko ejekuzioaren kostuaren balorapena egin duela, 104.000,- pezetakoa gutxi gora behera izanik, eta berak pinuak ateratzen ez baditu udalak aterako dituela bere pentzutan.

KONTUAN HARTUAZ.- Toki Erregimenaren Oinarri Legearen 21.1k) eta 68.1 artikulua xedatutakoaren arabera

ERABAKI DUT:

Lehenengo.- Manuel Barriola Tolosa Jaunari berriro hamar egunetako epea ematea, landatutako pinua atera dezan.

Bigarrena.- Honela egiten ez bada, Lizartzako Udalak ateratzea, ejekuzio subsidiarioan burutuko duela, gastuak interesdunaren gain joango direlarik, udalak eginiko balorapenaren arabera.

Hirugarrena.- Erabaki honen aurka ezin da helegiterik ezarri, beste erabaki irmo baten ejekuzioa bait da. Hala ere, legeak ematen dizkion bideak erabil ditzazke.

AGUSTIN GOIKOETXEAUNDIA PAGOLA

IKUSIZ.- Agustin Goikoetxeaundia Pagola Jaunak, Lizartzako Arauetan azaltzen den 2. Poligonoko 142 partzelan, eginiko pinu landaketak, eta Lizartzako Planeamenduko Arau Ordezkatzaileetan (21. Bis art.)ren arabera, aipatutako gunean, bertako ez diren hosto iraunkorra duten zuhaitz moten landaketa masiboa, debekaturik dagoela.

KONTUTAN HARTUAZ.- 1999ko urriaren 28an Alkatezak luzatutako Dekretuaren bidez, terreno horretan, landatutako pinuak ateratzeko agindua eman zela, bestela ordezkatzeko egiterate eraz egingo zela.

KONTUTAN HARTUAZ.- Erabaki horren aurka, Donostiako Administrazio Auzi Epaitegian, helegitea jarri zuela Agustin Goikoetxeaundia Pagola jaunak, eta epaitegi horrek 2000ko azaroaren 27an, epaia eman zuela, erabakia zuzenbidearekin bat datorrela berretsiz.

KONTUTAN HARTUAZ.- Epaia behin betikoa dela, eta Agustin Goikoetxeaundia Pagola Jaunak, pinuak atera gabe jarraitzen duela.

KONTUTAN HARTUAZ.- Udalak, ordezkatzeko ejekuzioaren kostuaren balorapena egin duela, 26.000,- pezetakoa gutxi gora behera izanik, eta berak pinuak ateratzen ez baditu udalak aterako dituela bere pentzutan.

KONTUAN HARTUAZ.- Toki Erregimenaren Oinarri Legearen 21.1k) eta 68.1 artikulua xedatutakoaren arabera

ERABAKI DUT:

Lehenengo.- Agustin Goikoetxeaundia Pagola Jaunari berriro hamar egunetako epea ematea, landatutako pinua atera dezan.

Bigarrena.- Honela egiten ez bada, Lizartzako Udalak ateratzea, ejekuzio subsidiarioan burutuko duela, gastuak interesdunaren gain joango direlarik, udalak eginiko balorapenaren arabera.

Hirugarrena.- Erabaki honen aurka ezin da helegiterik ezarri, beste erabaki irmo baten ejekuzioa bait da. Hala ere, legeak ematen dizkion bideak erabil ditzazke.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamart'erdia direnean.